

# Aliantzak:

Decathlonen inbertsio handia egin behar dugunez, era bereko bizikleten prezioetan deskontu handia edukiko dugu. Beraiekin adostu ondoren akordio batera iritsi gara. Gutxi gora-behera %35-eko deskontu bat egingo digute, baldintza batekin, beraien logoa bizikletetan ikusgarria izatea horrela publizitatea egiteko.



Udalari bizikletak aparkatzeko herrian zehar eremu ezberdinak erosiko dizkiogu. Eremu horietan bizikletak aparkatzeko makina batzuk jarriko ditugu, non, bizikleta bertan sartu behar den eta blokeatuta geratuko den. Bizikleta hartzeko, gure leihatilan hartutako txartela sartu behar da, berak txartelak irakurtzeko duen lekuan (treneko ticketarekin egiten den bezala) txartela sartu eta baliozkoa dela irakurtzean bizikleta aske geratzen da.

